



Lasaitasuna berreskuratu nahirik

Astegunetan itxura lasaia izaten du Kardaberaz kaleak. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Hernaniko herritarrek kexu dira txotx garaian herrian izaten diren istiluekin.

AINARA ARRATIBEL

Ostirala, Goizeko 11:00ak. Hernaniko (Gipuzkoa) Kardaberaz kalea lasai dago. Erosketak egiten ari den jendea dabil kalean, eta baita aitona-amona dezente biloba txikiekin paseoa ere. Handik ordu batzuetara, ordea, zurrunbiloa eta iskanbila izango da nagusi inguru haietan. Txotx garaia bukatzeaz da, eta askok amaiera arte aprobetxatu nahi dute. Zurrunbiloak eta iskanbilak kexak sortu ditu herritarren artean, aurtun sekula baino gehiago. Konponbide zaila duen gaia dela uste dute sagardogile, tabernari udal ordezkari eta herritarrek. Betiko lasaitasuna berreskuratzeko, asteburu bakarra falta zaie, halere, Hernaniko alde zaharreko auzotarrei. Izan ere, sagardotegi gehienak asteburuan itxiko dituzte.

Aspaldikoak dira herritarren kexak txotx garaian. Duela hamar urte, adibidez, herri galdeketa egin zuten gaia aztertzeko. Galdeketa ondoren, Txotx Batzordea sortu zuten sagardogileek, tabernariak, Udalak eta alde zaharreko bizilagunek. Haiek bultzatuta asko izan dira orduz geroztik hartu diren neurriak: udaltzain gehiago jartzea, tabernen itxeko ordua aurreratzea eta abar. Urte tik urtera, ordea, ugarituz joan da sagardo sasoiaren Hernanin biltzen den jendea, eta baita izan diren istiluak ere.

Bilgune Feministak eta Herne Hernaniko emakume taldeak duela gutxi ohartarazi zuten txotx garaian areagotu egin direla eraso sexistak. Gizonen duten inpunitatea salatuz zuten: «Lerdea dariola gerturatzan zaizkigu, begirada lizunekin biluzten gaituzte, irainduak izaten gara, baimenik gabe ukitzen gaituzte...». Emakumeen eskubideak errespetatzeko eskatu zuten: «Ondo pasatzeko, ligatzeko, jaiaz disfrutatzeko... eskubidea dugu».

Kalean izaten den zarata eta zikinkeria izan dira beste bi kexa nagusiak. Belen Garcia, adibidez, ez da bizi alde zaharrean, baina ondo ezagutzen du arazoa. Izan ere, lagun batzuk ditu han. Ulergarriak iruditzen zaizkio kexak: «Lagun horietako batek, adibidez, igande goizean lan egiten du. Ia begia bildu jabe joaten da lanera». Arazoak konponbide zaila duela iruditzen zaio, txotx garaia oso garrantzitsua baita herriarentzat. «Tabernariak indar handia dute, eta, beraz, herritarrok gauza bakarra egin dezakegu: egoera jasan», dio etsita.

Maite Santana ez dago horretarako prest. Alde zaharrean bizi da,